

Euskal AEko BPGk %0,2ko hazkundera izan zuen hiruhilekoen artean


Laugarren hiruhilekoko urte arteko aldakuntza %-2,5 izan da

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %0,2ko hazkundera izan du 2009ko laugarren hiruhilekoan aurrekoaren aldean, urtaro- eta egutegi-eraginak deskontaturik, Eustaten aurrerapen-datuen arabera. 2008an hasitako erorketetatik lehenengo hazkunde positiboa da, eta "Instituto Nacional de Estadística" egindako zenbatespenen arabera, Espainiako ekonomiarenaren (%-0,1) hiru hamarren gainetik dago.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean Euskal AEko BPGren urte arteko aldaketa %-2,5 izan da. Hazkunde negatiboa moteldu egin da eta lehengo hiruhilekoan izandako urte arteko minimotik (%-4,1) joera-aldaketa dago; beherantzako etengabea 2007ko lehen hiruhilekoan hasia zen. Urte artekoan Espainiako ekonomia %3,1 jaitsi da.

Urte osoan Euskal BPGren hazkunde erreala %-3,3 izan da.

Hona hemen joera-aldaketa honen zergatiak: industria hobetoxeago aritu da, eraikuntza gutxiago murriztu eta merkatuko zerbitzuen bilakaera hobe izan da.



Bizkortze apal honek enplegu-sorrera arin bati eragin dio, aurreko hiruhilekoaren aldean.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp